



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko abenduaren 28a

114. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, 2007ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia
(2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, 2007ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorre buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko abenduaren 22an egindako Osoko Bilkuran, 2007ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2006ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

2007ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko Foru Legea

I. TITULUA

Kredituak eta horien aldaketak

I. KAPITULUA

Hasierako kredituak eta horien finantzaketa

1. artikulua. Nafarroako Aurrekontu Orokorren esparrua.

Onetsi egin dira 2007ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak. Honako atalak dituzte:

a) Parlamentuaren, Comptos Ganberaren eta Arartekoaren aurrekontua.

b) Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontua.

c) Nafarroako Kontseiluaren eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren aurrekontua.

d) Foru Komunitateko fundazio publikoen aurrekontuak.

e) Foru Komunitateko sozietate publikoen jarduketa, inbertsio eta finantzaketa programak, baita finantzen egoera-orriak ere.

2. artikulua. Kreditu eta eskubide ekonomiko-
en zenbatekoa.

1. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontuetako gastuen egoera-orrietan sartutako programak betetzeko onetsi diren kredituek, bateratuta, 3.901.334.547 euro egiten dute.

2. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontuen diru-sarreraren egoera-orrietan, aurrekontu ekitaldi honetan ustez likidatuko diren eskubide ekonomiko-
koen zenbatespenak agertzen dira; hain zuzen ere, 3.901.334.547 euro egiten dute bateratuta.

II. KAPITULUA

Aurrekontuetako kredituen aldaketa

3. artikulua. Aurrekontuetako kredituen aldaketa.

Aurrekontuetako kredituen aldaketak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen aginduen arabera izan dira, baldin eta foru lege honek agindu horiek aldatzen ez baditu.

Aurrekoa gorabehera, kontusailen arteko funts mugimenduak ez dira aurrekontu aldaketatzat hartuko, baldin eta kontusail horietako kredituek helburu berbera badute, eta Europar Batasunak, horiek hein batean kofinantzatzen dituzenez, gastuen erabileraren gaineko kontrola hobetzea eskatzen duelako soilik bereizten badira.

4. artikulua. Kreditu gehikuntzak.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluko a)tik f)ra bitarteko letretan aipatutako kredituez gain, 2007. urtean ondoko kredituek ere gehikuntzarik izan ahal dute: epaien betearazpenak finantzatzera bideraturiko kredituak, epai-exekuzio haietan zehazten den zenbatekoa dutenak. Helburu horretarako berariazko kontusailik ez badago, edozein departamentutan gaitu ahalko da, gastuaren

izaera edozein izanik ere. Kasu horren barnean egonen dira Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenak, horien betearazte subsidiarioaren ondorioz Nafarroako Gobernuak funts ekonomikoak edukitzea beharrezkoa gertatzen denean, baita Nafarroako Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren eta zerga administrazioaren organo kudeatzaileen ebazpenak ere, gastuen itzulketa eskatzen baldin bada, eta, era berean, Nahitazeko Desjabetzape-nerako Probintziako Epaimahaiaren erabakiak eta, orobat, Nafarroako Foru Komunitateak ordaindu behar dituen finantza-zuzenketak, Ordainketa-era-kundeak funts komunitarioak kudeatzearen ondoriozkoak.

Era berean, ondare erantzukizunagatiko kalte-ordainei dagokienez, aurreko lerroaldean aipatu epaiak betearazteko ezarri bezala jokatu da eta tratamendu bera izanen dute.

Ekintza terroristen ondorioz eman daitezkeen dirulaguntza eta maileguei dagokienez, dauden kontusail guztiak edo ekitaldian zehar helburu horrekin sortu beharrekoek gehikuntza izan ahalko dute.

Aurrekoaz gainera, ondorengoak ere gehitu ahalko dira:

1. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontusailok:

a) 010001-01000-2275-921100 kontusaila, "Hauteskundeak" izenekoa. Kontusail horri aplikatu ahalko zaizkio hauteskundeak egiteko behar diren lan eta inbertsio guztien edonolako gastuak.

b) 010004-01100-2263-921700 kontusaila, "Gastu juridiko-kontentziosoak" izenekoa.

c) 020002-04100-1001-921400 kontusaila, "Lehendakari ohi eta kontseilari ohientzako prestazioak" izenekoa.

d) 020002-04100-1239-921400 kontusaila, "Funtzionarioen famili laguntza, osagarri berriak, eszedentzietako itzultzeak eta beste batzuk" izenekoa.

e) 020002-04100-1309-921400 kontusaila, "Aldi baterako kontratuen bukaerako kalte-ordainak" izenekoa.

f) 020002-04100-1309-921402 kontusaila, "Lan kontratudunen famili laguntza, osagarri berriak, eszedentzietako itzultzeak eta beste batzuk" izenekoa.

g) 020002-04100-1620-231800 kontusaila, "Osasun laguntza-erabilera berezia" izenekoa.

h) 020002-04100-1620-231802 kontusaila, "Lan-istripuengatiko aldi baterako lan-ezintasunaren subsidioa ordaintzea" izenekoa.

i) 020002-04100-1620-921400 kontusaila, "Langileei buruzko hitzarmen indarduna aplikatze-ko funtsa" izenekoa.

j) 020002-04100-1700-921400 kontusaila, "Kalte-ordaina. Derrigorrezko leku-aldaketa, bizilekuaren aldaketa eta guzti" izenekoa.

k) 020002-04100-1709-921400 kontusaila, "Zerbitzuak aitortzeko Gizarte Segurantzarekiko hitzarmenaren aurreikuspena" izenekoa.

l) 020002-04100-1709-921403 kontusaila, "Lan istripuengatik jaso beharreko kalte-ordainak" izenekoa.

m) 020002-04300-1614-211100 kontusaila, "Aldez aurretik erretiratzeagatik jaso beharreko kalte-ordainak" izenekoa.

n) 051000-02100-2274-132102 kontusaila, "Genero indarkeriatik babesteko segurtasun zerbitzuak" izenekoa.

ñ) 051000-02100-6054-132102 kontusaila, "Segurtasunerako tresnak" izenekoa.

o) 060000-06000-6000-133100' kontusaila, "Espetxe berria eraikitze lurrak erostea" izenekoa.

p) 060000-06000-6019-133100 kontusaila, "Espetxe berria eraikitze lurrak urbanizatzea" izenekoa.

2. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontusailok:

a) 100000-10100-4709-923900 kontusaila, "AUDENASA. Merkataritza politika" izenekoa.

b) 110000-11000-4819-923400 kontusaila, "Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren funtzionamendurako transferentziak" izenekoa.

c) 112001-11410-9500-929100 kontusaila "Osoko kreditua. 8/1988 Foru Legeko 39. artikulua."

d) 121002-13300-2020-923100 kontusaila, "Ondasun higiezin errentamenduak" izenekoa.

e) 121002-13300-6020-923100 kontusaila, "Instalazio berriko eraikuntza eta obrak, ondare higiezin birmoldatzea eta janzteak."

f) 121002-13300-8500-923100 kontusaila, "Sektore publikoko akzioak erostea" izenekoa.

g) 121003-13300-6092-467900, "Proiektu teknikoak" izenekoa.

h) 151000-12140-2273-467900 kontusaila, "Datu fiskalak grabatzea" izenekoa.

i) 155003-12530-2272-923703 kontusaila, "Zor-dun fiskalen ondasunen gaineko kargak eskuratzea" izenekoa.

j) 160000-11100-2269-941100 kontusaila, "Transferentzia berriak eskuratzearen ondoriozko gastuak" izenekoa.

3. Toki Administrazio Departamentuko kontusailok:

a) 211002-21400-4609-942300 kontusaila, "Toki erakundeetako administrazio-berregituraketako prozesuak sustatzea" izenekoa.

b) 211002-21400-7609-942300 kontusaila, "Toki erakundeetako administrazio-berregituraketako prozesuak sustatzea" izenekoa.

c) 211003-20200-8216-942200 kontusaila, "Funts aurreratua. Aurrekontu oreka"

d) 211003-21300-7609-456100 kontusaila, "Ibaiak arazteko eta saneatzeko plan zuzentzailea. EGEF. 2. helburua" izenekoa, Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren babeseko proiektuetako 2007ko urteko ordainketa finantzatzeko adina.

e) 212001-21310-7600-456100 kontusaila, "Goiko ur hornidurarako plan zuzentzailea. Kohezio funtsak" izenekoa, Europar Batasunerako Kohezio Funtsen babeseko proiektuetako 2007. urteko ordainketa finantzatzeko adina.

f) 220002-22100-2275-921500 kontusaila, "2007ko hauteskundeak" izenekoa.

g) 220002-22100-2279-921503 kontusaila, "Nazioarteko Erakusketa, Zaragoza 2008" izenekoa.

4. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko kontusailok:

a) 320000-32200-4809-261202 kontusaila, "Etxebizitza-errentamenduen zerga-gastuak" izenekoa.

b) 320000-32200-4809-261400 kontusaila, "Etxebizitzen errentarientzako dirulaguntzak" izenekoa.

c) 320000-32200-6000-261202 kontusaila, "Eroslehetasun eta atzera-eskuratze eskubideak gauzatzea, eta lurzoru-salmenta eskaintzak" izenekoa.

d) 32000-32200-7800-261400 kontusaila, "Etxebizitzaren arloko jardueretarako dirulaguntza eta sorospenak. Foru Programa" izenekoa.

e) 320000-32200-7800-261403 kontusaila, "Ohiko etxebizitzarako inbertsioaren zerga-gastuak" izenekoa.

5. Hezkuntza Departamentuko kontusailok:

a) 400000-40200-1239-321100 kontusaila, "Funtzionarioen zerbitzuen onarpenerako, osagarri berrietarako, antzinasunerako, famili laguntzarako, eszedentzietako itzultzeak eta beste batzuetarako aurreikuspena" izenekoa.

b) 400000-41000-1310-321100 kontusaila, "Aldi baterako langileen ordainsariak" izenekoa.

c) 400000-41000-1600-321100 kontusaila, "Gizarte Segurantza" izenekoa.

d) 410001-41120-7609-325102 kontusaila, "Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko" izenekoa.

e) 410002-41140-4609-322D00 kontusaila, "Departamentuak haurrak eskolatzeko erabilitako udal eraikin eta eskola-kontzentrazioetarako dirulaguntza" izenekoa.

f) 410004-41150-2210-324100 kontusaila, "Jantokiak" izenekoa.

g) 410004-41150-2230-324100 kontusaila, "Eskola garraioa" izenekoa.

h) 423001-41610-4809-322400 kontusaila, "Hezkuntza bereziko bekak eta laguntzak" izenekoa.

i) 423001-41610-4811-322000 kontusaila, "Kas-tetxe itunduei laguntzak ematea berriazko hezkuntza premietarako" izenekoa.

j) 431000-43100-6001-325100 kontusaila, "Nafarroako Unibertsitate Publikoarentzako desjabetzeak" izenekoa.

6. Osasun Departamentuko kontusailok:

a) 1241 kode ekonomikokoak, osasun arloko udal langile transferituen lansariak ordaintzeko direnak, foru administrazioak izanik Toki Osasunaren zerbitzuan dauden eta Nafarroa osasun eskualdetan banatzeari buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea eta Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berriazko erregimenari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea aplikatzearen ondorioz transferitzen diren funtzionarioen soldatak ordaintzeko behar den zenbatekoan.

b) 540000-52000-1239-311100 kontusaila, "Funtzionarioen zerbitzuen onarpenerako, osagarri berrietarako, famili laguntzarako, gradurako, antzinasunerako eta beste batzuetarako aurreikuspena" izenekoa.

c) 540000-52000-1309-311100 kontusaila, "Zerbitzuen aitorpenerako, antzinasunerako, osagarri berrietarako, famili laguntzarako eta beste batzuetarako aurreikuspena" izenekoa.

d) Botikak erosteko direnak, 2215 kode ekonomikoa dutenak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan honako gastu-programetan kokatuak: 540, 541, 542, 543, 544, 545, 546, 547 eta 548.

e) 541006-52225-2500-311106 kontusaila, "Organoen birlanaketa" izenekoa.

f) 541007-52220-2269-311100 kontusaila, "NGOlarekin koordinazioa, proiektuak eta programak" izenekoa.

g) 547001-52310-2279-312200 kontusaila, denominada "Aho-hortzetako osasun programa" izenekoa.

h) 547002-52370-4809-313100 kontusaila, "Farmaziako prestazioak" izenekoa.

i) 547002-52370-4809-313102 kontusaila, "Zurgatzaileak eta beste osasun-produktu batzuk" izenekoa.

7. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko kontusailok:

620001-61100-2030-453200 kontusaila, "Iruña-Logroño A-12 autobaien kanona" izenekoa.

8. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko kontusailok:

a) 700000-71000-4700-411100 kontusaila, "Aseguru primen konpentsazioa" izenekoa.

b) 720000-72130-2276-417100 kontusaila, "Nafarroako Ubidearen bidezko ureztaketa sustatzeko jarduketak" izenekoa.

c) 720000-72130-4700-417100 kontusaila, "Nafarroako Ubidearen bidezko ureztaketen kanona" izenekoa.

d) 720001-72120-6019-414300 kontusaila, "Lurren jabetza antolatze eta lurzati berrantolamendua egiteko obrak, PDR FEADER" izenekoa.

e) 721000-72210-7701-413102 kontusaila, "Nekazaritza industrializatu eta merkaturatzeko inbertsioetarako diru-laguntzak PDR FEADER" izenekoa.

f) 721002-72230-7700-412100 kontusaila, "Nekazaritza-ustategien eraginkortasuna hobetzea. PDR FEADER" izenekoa.

g) 721002-72230-7700-412103 kontusaila, "Makineriarako eta produkzio-bideetarako dirulaguntzak" izenekoa.

9. Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuko kontusailok:

a) 810001-81130-6015-458100 kontusaila, "Industria azpiegiturako inbertsioak" izenekoa.

b) 830001-81120-4709-422200 kontusaila, "Enplegu sorreragatiko zerga-gastuak" izenekoa.

c) 830001-81120-7701-422202 kontusaila, "Inbertsio eta enpleguarengatiko funts galdurako dirulaguntzak" izenekoa.

d) 830001-81120-7709-422200 kontusaila, "Inbertsioen zerga-gastuak" izenekoa.

e) 830001-81120-7709-422202 kontusaila, "Inbertsioen zerga-gastuak. Prever plana" izenekoa.

f) 840001-81200-7709-467303 kontusaila, "I+G+B proiektuetarako, patenteetarako eta bidegararritasun azterlanetarako dirulaguntzak enprezentzat. FEDER Programak" izenekoa.

g) 840001-81200-7709-467307 kontusaila, "I+G+Bko inbertsioen zerga-gastuak" izenekoa.

h) 840001-81200-7819-467302 kontusaila, "Zentro teknologikoak finkatzeko dirulaguntzak. FEDER Programak" izenekoa.

i) 881001-84100-4819-241100 kontusaila, "Enpleguko zentro berezientzako transferentziak, eragiketa arruntetarako" izenekoa.

j) 881001-84100-4819-241104 kontusaila, "Laneratzeko zailtasun handienak dituztenak lan munduan sartzeko programak PO/3 FSE Nafarroa" izenekoa.

k) 881001-84100-7709-241100 kontusaila, "Autonomoentzako dirulaguntzak inbertsioetarako PO/3 FSE Nafarroa" izenekoa.

l) 881001-84100-7709-241200, "Kooperatiba eta lan sozietateetarako dirulaguntzak, enplegua sostengatzeko" izenekoa.

m) 881002-84100-4819-241100 kontusaila, "Enplegu ekimenetarako ekintzak, EBeko funtsen bidez kofinantzatutako" izenekoa.

10. Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza Departamentuko kontusailok:

a) 900000-91200-4819-143103 kontusaila, "Nazioko eta nazioarteko larrialdietarako laguntzak" izenekoa.

b) 923001-93530-4809-231402 kontusaila, "Laguntzak, etxeko laguntza pertsonala emateko" izenekoa.

c) 924002-93320-4809-231500 kontusaila, "Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak" izenekoa.

d) 924003-93310-4609-231500 kontusaila, "Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak" izenekoa.

e) 924003-93310-4809-231500, "Alarguntza pentsioengatikoen kenkarietatik sorturiko zerga-gastuak"

f) 924003-93310-4809-231502 kontusaila "Zaintzaileen kotizazioengatikoen kenkarietatik sorturiko zerga-gastuak" izenekoa.

g) 925001-93330-4809-212100 kontusaila, "Kotizazio gabeko pentsioak" izenekoa.

h) 925001-93330-4809-212103 kontusaila, "Aurreikuspen sozialeko sistemetakoen ekarpenengatikoen zerga-gastuak" izenekoa.

i) 950002-92130-4809-231502 kontusaila, "Lau seme-alaba edo gehiagoko familientzako laguntzak" izenekoa.

j) 950002-92130-4809-231503 kontusaila, "Lanean ari diren amentzako laguntzak" izenekoa.

k) 950002-92130-4809-231505 kontusaila, "Hirugarren seme-alaba edo hurrengoak izandako familientzako laguntzak" izenekoa.

11. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko honako kontusail hau:

A20002-A2510-7800-331100 kontusaila, "Interes kultureleko ondasunetako inbertsioen zerga-gastuak" izenekoa.

12. Nafarroako Parlamentuaren ondoko kontusaila:

P01001-P0000-4550-911200 kontusaila, "Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak" izenekoa.

5. artikulua. Bete gabeko lanpostuak direla eta, kreditu soberakinen norakoa.

Bete gabeko lanpostuak direla eta aurreikus daitezkeen soberakinak behin-behineko kontratuak finantzatzeko erabili ahal dira, zerbitzuen funtzionamendu onerako beharrezkoa baldin bada. Xede horretarako ezarriko dira kredituak, horiei dagokien programan.

6. artikulua. Esleitu zain dauden langileria-gastuen kontusailen kudeaketa.

1. Langileria-gastuen kapituluaren barrenean, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari ahalmena ematen zaio, "Esleitu zain dauden langileria-gastuak" izeneko kontusailak kudeatzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan

eta haren erakunde autonomoetan sortzen diren langile berriak kontratatzekeo premiei aurre egiteko.

2. Aurreko puntuan aipatu diren kontusailen eragina duten langileria-gastuen kapituluaren barrenean egiten diren funts-mugimenduak ez dira aurrekontu-aldaketatzat hartuko, Nafarroako ogasun publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988ko Foru Legeak agintzen duenari dagokionez.

II. TITULUA Langileria-gastuak

I. KAPITULUA Jarduneko langileen ordainsariak

7. artikulua. Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen eta estatutupeko langileen lansariak.

1. 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera, Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko funtzionario eta estatutupeko langileen ordainsariak, 2006ko ekitaldiko Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 29ko 18/2005 Foru Legean ezarritakoak, 100eko 2 gehituko dira -foru lege honen bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa bete ondoren-. Horrek ez du ezertan galaraziko, hala ere, lanpostu bakoitzaren ordainsarrietan egokipenak egitea, bidezkoak badira, lanpostu horren aparteko zailtasun tekniko, dedikazio, erantzukizun, arriskugarritasun edo nekagarritasuneko edukiarekin bat datozela ziurtatzeko.

2. Aurreko puntuan adierazitako gehikuntza behin-behinekoa izanen da Nafarroako Gobernuak 2007ko lansarien behin betiko igoera zehazten ez duen bitartean, foru lege honen hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat.

8. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoetako lan-kontratudunen lansariak.

1. 2007ko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko lan-kontratudunen egungo lansariak haien hitzarmen kolektiboan zehazten direnak izanen dira, foru lege honen 7. artikuluan finkatutako irizpideei jarraikiz.

2. Nafarroako gainerako administrazio publikoaren zerbitzuko lan-kontratudunen ordainsariak, administrazio publiko bakoitzak bere aurrekontuetan ezartzen dituenak izanen dira, betiere foru lege honetako 7. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz.

9. artikulua. Nafarroako Gobernuko kideak, zuzendari nagusiak eta erakunde publikoetako zuzendariak.

1. Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 35. eta 45. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuko kideek 2007. urtean ondoren zehazten diren ordainsariak izanen dituzte, hamalau hilabetetan banatuta, indarra duen araudiaren arabera egokitzen zaizkien antzinatasunaz eta graduaz gainera.

Nafarroako Gobernuko lehendakaria: 78.227,94 euro.

Kontseilaria: 72.801,12 euro.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 22.5 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari zuzendari nagusiek 2007. urtean 57.632,12 euroko ordainsariak izanen dituzte, hamalau hilabetetan banatuta, indarra duen araudiaren arabera egokitzen zaizkien antzinatasunaz eta graduaz gainera.

3. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 109.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, erakunde publikoetako zuzendariak 2007. urtean ondoko zerrendan zehazten diren ordainsariak izanen dituzte, hamalau hilabetetan banatuta, indarra duen araudiaren arabera egokitzen zaizkien antzinatasunaz eta graduaz gainera.

a) Erakunde autonomoko zuzendari kudeatzailea, ondoko b), c), d) eta e) letretan xedatutakoa salbu: 57.632,12 euro.

b) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak: 93.092,16 euro.

c) Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea: 71.177,26 euro.

d) Nafarroako Larrialdietako Agentziako zuzendari kudeatzailea: 56.309,96 euro.

e) Nafarroako Emakumearen Institutuko zuzendari kudeatzailea: 50.585,92 euro.

f) Erakunde autonomoko zuzendariordea eta Nafarroako Larrialdietako Agentziako zuzendariordea: 50.585,92 euro.

g) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendaritzako kideak:

– Giza Baliabideen zuzendaria, Oinarrizko Osasun Laguntzako zuzendaria, Laguntza Espezi-

alizatuko zuzendaria eta Administrazio eta Antolaketa zuzendaria: 71.135,82 euro.

– Nafarroako Ospitaleko zuzendaria, Bideko Ama Birjina Ospitaleko zuzendaria eta Anbulatorioen eta Ospitalez kanpoko Laguntzaren zuzendaria: 62.055,00 euro.

– Lizarrako Barrutiko zuzendaria, Tuterako Barrutiko zuzendaria, Nafarroako Ospitaleko zuzendari medikoa, Bideko Ama Birjina Ospitaleko zuzendari medikoa eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko zuzendariordea: 59.473,40 euro.

– Ubarmin Klinikako zuzendaria, Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroko zuzendaria, Nafarroako Ekialdeko Oinarrizko Osasun Laguntzako zuzendariordea, Nafarroako Iparraldeko Oinarrizko Osasun Laguntzako zuzendariordea, Laguntza Anbulatorioa Koordinatzeko zuzendariordea, Adimen Osasuneko zuzendariordea eta Laguntza Espezializatuko zuzendariordea: 57.920,66 euro.

– Langileri eta Lan Harremanetako zuzendariordea eta Kudeaketa Ekonomikorako eta Antolaketaren Garapenerako zuzendariordea: 56.874,58 euro.

– Nafarroako Ospitaleko Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria, Nafarroako Ospitaleko Erizaintza zuzendaria, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Erizaintza zuzendaria, Nafarroako Ospitaleko Langileri zuzendaria, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Langileri zuzendaria, Lizarrako Barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzaren zuzendariordea, San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoko zuzendaria eta Tuterako Barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzaren zuzendariordea: 54.300,68 euro.

– Anbulatorioen eta Ospitalez Kanpoko Laguntzaren Kudeaketa zuzendaria: 51.719,08 euro.

4. Erakunde autonomo bateko kudeatzaile edo zuzendari kudeatzaile karguan ari direnek, Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako plantillakoen artean izendatutakoen, dagozkien ordainsariak izanen dituzte, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

5. Artikulu honetan ezarritako ordainsariak Nafarroako 2006ko aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 29ko 18/2005 Foru Legearen ezarritakoak baino 100eko 2 altuagoak dira, behin-behinekoz, eta foru lege honen bigarren eta hirugarren xedapen gehigarrietan ezarritakori jarraikiz gaurkotuko dira.

II. KAPITULUA

Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboak

10. artikulua. Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioak gaurkotzea.

1. 2007ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioek, gaurkotzeko eskubidea badute, 100eko 2ko igoera izanen dute, 2006ko ekitaldiko Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko abenduaren 29ko 18/2005 Foru Legean 2006. urterako ezarritakoak oinarri harturik.

2. 2007. urtean, Nafarroan Kontsumoko Prezioen egiazko Indizea 100eko 2tik gorakoa bada, alde hori zuzenean aplikatuko da gaurkotzeko eskubidea duten Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioetan; hots, 2007ko urtarrilaren 1aren aurretik sortzen direnetan; alde hori bateratu egingen da eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu eragin ekonomikoak.

Halaber, finkatuko ez den sari bakar bat ordainduko zaie aurreko lerrokadan aipatutako pentsio-dunei; 2007. urtean sorrarazitako pentsioen zenbateko osoaren gainean kalkulatu da, eta aipatu desbideratzearen portzentajearen parekoa izanen du zenbatekoa.

11. artikulua. Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sistemari jarraitzen duten funtzionarioen eskubide pasiboen araubiderako arauak.

1. Martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legeak indarra hartu baino lehen indarra zuten xedapenek arautuko dute artikuluko honetan aipatzen den funtzionarioen eskubide pasiboen araubidea. Soldata erregulatzailerak zehazteko, aipatu foru legearen eta hura betetzeko emandako lantsarien behin-behineko erregelamenduaren aurreko sistemaren arabera funtzionarioek jasotako lantsari handienak hartuko dira aintzakotzat, eta horiei Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko foru legeetan hurrengo urteetarako ezarritako ehunekoak gehituko zaizkie. Salbuespena izanen da lan istripuaren ondoriozko ezgaitasunengatik pentsioei eta lanbideko eritasunengatik pentsioei buruz artikuluko honetan xedatutakoa.

2. Aurreko idatz-zatian aipatu xedapenen arabera, erretiro eta pentsioen ondorioetarako zerbi-

tzualdia zenbatzeko, funtzionarioek zerbitzuan egiazki egindako urteak besterik ez dira kontuan hartuko. Urte horien barrenean sartuko dira administrazio publikoan egiazki egindako urteak, betiere behar den administrazioak aitortuak, Foru Diputazioak 1981eko urriaren 29an hartutako Erabakiari eta apirilaren 14ko 21/1983 Foru Dekretuari jarraituz.

Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren edo Toki Erakundearen montepioen bati atxikitako funtzionarioen erretiro-, alargun- eta umezurtz-pentsioen kasuan, foru lege honek indarra hartu ondoren jardunean hil edo erretiratutakoak badira, honako hauek zenbatuko dira, eta pentsioaren zio den egintza gertatutako egunetik aurrera izanen dute eragina; aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren araubide ezberdinetan kotizatutako aldiak, betiere, aldi horiek aipatu montepioei kotizatutako beste batzuekin gainjartzen ez badira, honako hauek finkatzeko ondorioetarako soilik: eskubide pasiboetarako hartzeko zenbagarriak eta dagokion pentsioa kalkulatzeko kotizazio edo zerbitzu-urteengatikako ehuneko edo kuota.

Aurreko idatz-zatian aipatu funtzionarioek sortutako erretiro-, alargun- eta umezurtz-pentsioetarako, inola ere ez dira hurrengoak zenbatuko: aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren araubide ezberdinetan kotizatutako aldiak, baldin eta aipatu aldiek, hala badagokio, beste batzuekin batuta, aipaturiko araubideetan pentsiorako eskubiderik sortu badute, salbuespen batekin, hots, SOVI delakoaren prestazioetarako eskubidea sortzeko balio duten aldi kotizatuak, zenbatu egingen baitira horiek.

Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak edo toki entitateek dituzten montepioetakoren baten babesean dauden funtzionarioek alargun pentsioa sortuz gero, bikotekide egonkorrek ere izanen dituzte eskubide pasibo horiek.

3. Artikulu honen 1. idatz-zatian xedatutakoa betez, eta Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren barrenean dauden funtzionario publikoek 2007. urtean hartutako erretiro eta pentsioak finkatzeko, ondoko hau hartuko da kontuan:

a) Eskubide pasiboetan eragina duten lantsari kontzeptuen zenbatekoak 2007. urteari dagozkionak izanen dira, hau da, 1983. urtekoei geroko aurrekontuei buruzko foru legeek, hau barne, finkatutako gehikuntzak aplikatu ondoren sortzen direnak.

Horri begira, lansarien zenbatekoak eta gares-titasun plusa, 2007. urtekoak, zein diren zehazteko, 100eko 2a gehituko zaie 2006ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 29ko 18/2004 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritako kopuruei. 2007an Nafarroan Kontsumoko Prezioen egiazko Indizea 100eko 2tik gorakoa bada, alde hori zuzenean aplikatuko zaie zenbateko horiei, bateratu eginen da eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu eragin ekonomikoak. Halaber, azken kasu horretan, aipatu desbideratetik heldu diren eta 2007. urteari dagozkion aldeak ordainduko dira.

Salbuespen gisa, lan istripu edo lanbideko eritasunaren ondoriozko ezgaitasunagatiko erretiro pentsioen kasuan, bai eta lan istripuz edo lanbideko eritasunez hiltzearen ondoriozko alargun edo umezurtz pentsioenean ere, funtzionarioa erretiratu edo hil aurreko urtean hark bere lanpostuagatik jasotako lansariet osatuko dute alokairu arautzailea.

b) 1980ko urtarrilaren 29ko Parekatze Arautik sortutako ordainsari sistematik kanpo geratu ziren udal funtzionarioentzat, horren bigarren xedapen gehigarriko bigarren lerrokadan emandako ahalmena oinarritzat hartuz, pasiboetan eragina duten ordainsari kontzeptuen zenbatekoa honakoa izanen da: funtzionario horientzako 1983ko zenbatekoari hurrengo urteetan izandako gehikuntzak erantsiz, 2007rako aurreikusitakoa barne, ateratzen dena.

4. Funtzionarioek pentsio araubidea finantzatzeko lagunduko dute 13/1983 Foru Legearen aurreko arauteria aplikatuz ateratzen den zenbatekoaz, ondorengo urteetako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeetan ezartzen diren pentsio igoeren portzentajeak erantsirik.

5. 2007ko urtarrilaren 1etik aitzina, gutxieneko erretiro-pentsioaren urteko zenbateko gordina Nafarroako administrazio publikoetako E mailako funtzionarioentzat 2007rako finkatuko den hasierako soldataren adinakoa izanen da. Atal honek xedatua bakarrik ezarriko zaie indarreko arautegiaren arabera gaurkotzeko eskubidea duten pentsioei.

6. 2007ko urtarrilaren 1etik aitzina, gutxieneko alargun-pentsioa ekitaldi horretarako ezarriko den lanbide arteko gutxieneko soldataren adinako urteko zenbateko gordina izanen da.

7. Artikulu honetako 6. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, Nafarroako administrazio publikoen klase pasiboen edozein montepioaren kargura emandako umezurtz-pentsioei (martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko eskubide

pasiboen sistema aplikaturik), zein bere Erregelamenduaren arabera, 1991ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko otsailaren 26ko 5/1991 Foru Legeko hemezortzigarren xedapen gehigarriak emandako idazkera oinarri harturik.

Gehikuntza honetatik baztertu egiten dira, beraz, aipatu 5/1991 Foru Legean ezarritako aldatetaren aurretik aplikatzen zen araudiaren arabera emandako umezurtz pentsio guztiak, onuradunaren ezintasun egoeraren eraginez onartu zirenak izan ezik.

8. Foru Diputazioko funtzionarioen erretiroei eta pentsioei buruzko Erregelamenduko 8. artikuluko 3. idatz-zatian eta udal funtzionarioen eskubide pasiboari buruzko Erregelamenduko 10. artikuluan aipatzen diren umezurtz-pentsioak eta udal montepio partikularretan ezaugarri berak dituzten umezurtz-pentsioak, onartu eginen dira baldin eta pentsio horiek eskuratzeko bete beharreko baldintza guztiak betetzen badira pentsioa sorrarazten duen pertsona edo, bestela, alargun pentsioa jasotzen duen ezkontidea edo bikotekide egonkorra hiltzen den egunean.

9. Nafarroako administrazio publikoetako montepioen alargun-pentsioak bateragarriak dira bai norberak egindako lanarengatik jasotako dirusarrekin bai erretiro-pentsioarekin.

III. KAPITULUA

Bestelako xedapenak

12. artikulua. Lanpostuak egokitzea.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio behar diren neurriak har ditzan, plantilla berregituratzeagatik edo eman beharreko zerbitzuengatik edukirik gabe gelditutako lanpostuak, bete gabeak ez direnak, birmoldatu eta bestelakoak bihurtzeko. Eginkizun aldaketak eta lekualdaketak, maila berraren barnekoak, albuespen gisa baino ez dira egiten, eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak berak zuzenean egiten ditu.

13. artikulua. Udal funtzionarioen montepioen finantzaketa.

1. Nafarroako Gobernuak 6.244.280 euroko ekarpena egiten du, Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren barrinean dauden Nafarroako toki entitateetako funtzionarioek sortzen dituzten pentsioak finantzatzeko.

Zenbateko hori Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren kudeaketak 2006. urtean sortutako kostuen banaketan udal bakoitzari esleitutako kuotaen proportzio berean banatuko da.

2. Halaber, Nafarroako Gobernuak 5.496.705 euro banatuko ditu Iruña, Tuter eta Tafallako udalen artean, haien berariazko montepioen kudeaketak 2006ko ekitaldian sortutako kostuen arabera.

3. Aurreko idatz-zatietan ezarritako zenbatekoek ez dituzte alde batera uzten martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarria aplikatuta ateratzen direnak.

III. TITULUA Finantza eragiketak

I. KAPITULUA Abalak

14. artikulua. Abalak.

Legeetan aurreikusitako kasuetan, Nafarroako Gobernuak abalak eman ahalko ditu, guztira 30.000.000 euro, gehienez. Muga horren barranean, baimena ematen zaio Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuari abalak emateko ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuetarako, azaroaren 20ko 360/2000 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraikiz. Abal horien gehieneko zenbatekoa, proiektu bakoitzeko, 1.500.000 euro izanen da.

II. KAPITULUA Zorpetzea

15. artikulua. Zor Publikoa jaulki edo maileguak nahiz kredituak ituntzeko baimena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, merkatuaren ohiko baldintzetan maileguak edo kredituak itundu edo zor publikoa jaulkitzeko. Haren muga izanen da 2007ko abenduaren 31ko saldo biziduna ezin izanen dela izan 2007ko urtarilaren 1ekoa baino handiagoa.

IV. TITULUA Toki entitateak

16. artikulua. Toki ogasunek Nafarroako tribu-tuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2005etik 2008ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen abenduaren 3ko 17/2004 Foru Legearen aldaketa.

Toki ogasunek Nafarroako tribu-tuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2005etik 2008ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen abenduaren 3ko 17/2004 Foru Legearen 12. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzea, 5.a, eduki honekin:

“5. Transferentzia arrunten funts orokorreko diru-kopuruen hiruhileko ordainketak egiten diren

hilaren aurreko hileko 15erako Toki Administrazio-ko Departamentuan azken hiru kontu-espeditentak edo ekitaldi horietako likidazio espeditentak aurkeztu ez dituzten toki entitateei funtsetik jaso gabe dituzten kopuruen atxikipena eginen zaie, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean araututakoaren arabera. Dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko zaizkie atxikitako kopuruak, hurrengo hiruhilekoko ordainketan.”

17. artikulua. Funts aurreratua. Aurrekontu-oreka.

1. Aurrekontuko “Funts aurreratua. Aurrekontu-oreka” izeneko kontusaila udal eta kontzejuen aurrekontu desorekak arintzeko erabiliko da, transferentzia arrunten funtseko diruaren aurrerakinak emanaz.

2. Aurrerakin horiek eskatzeko, udal edo kontzejuek negatiboa izan beharko dute diruzaintza-gerakin osoa edo gastu orokorren diruzaintza-gerakina, edo biak negatiboak, 2006ko kontu espeditentaren edo likidazio espeditentaren arabera.

Aurrerakin hori eskuratu nahi duten udal eta kontzejuek 2007ko lehen hiruhilekoan eskatu beharko dute.

3. Udal eskatzaileek baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

a) Hirilurraren gaineko kontribuzioa baloratzeko ponentziaren gaurkotzea onestea legeria indardunarekin bat, eta onetsi eta hurrengo zergaldian aplikatzea.

b) Lurraren gaineko kontribuzioko zerga-tasari dagokionez onetsi eta aplikatzen den gutxieneko igoera, urtean, Nafarroako Foru Komunitateko Kontsumoko Prezioen Indizea, ekainetik ekainera kontuan harturik, gehi bi puntu izatea, gutxienez karga portzentaje hauetara iritsi arte:

- Lurralde kontribuzioa, hiri ondasunen gainekoa: 0,30.
- Lurralde kontribuzioa, landa ondasunen gainekoa: 0,62.
- Lurralde kontribuzio bateratua: 0,30.

Kontzejuen kasuan, neurriak ezartzea diru-arrerak lortzeko ondare eta herri ondasunez baliatuta.

4. Aurrerakin horiek jaso ahalko dituzte, halaber, aurrekontu oreka berrezartzerik ez duten udal eta kontzejuek, organo eskudunak eskatu ondoren eta baldintza orokorrak aztertuta kasuan kasuko egoera ekonomikoa aintzat harturik. Toki entitate

bakoitzarentzako konpromiso zehatzak jasoko dituen hitzarmenetan formalizatuko dira aurrerakinaren baldintzak.

5. Aurrerakinaren zenbatekoa, gehienez ere, diruzaintza-gerakin negatiboaren zenbatekoa adinakoa izan daiteke, eta bi aurrekontu ekitaldietan ordaindu.

Aurrerakina itzultzeko, atxikipena eginen zaio urtero entitateari, onuradunak Transferentzia Arrunten Funtsetik jaso beharreko zenbatekoaren 100eko 40rainokoa, gehienez ere 10 urtez, beste 2 urteko gehieneko gabealdia ezartzeko aukerarekin. Atxikipenaren portzentajea eta itzulketarako eta gabealdiko epeak gehitu ahalko dira salbuespenezko egoera batzuetan, Toki Araubideko Foru Batzordeari horren berri eman ondoren betiere.

6. Hitzarmenaren haritik hartutako betebeharrak betetzen ote diren jakiteko, urtero eginen da jarraipena, transferentzia arrunten funtsa kalkulatzearekin batera eta betiere emandako aurrerakina itzultzeko epeak indarra duela; hortaz, aurrekontuen likidazio espedientea ekitaldi bakoitzeko maiztaren 1a baino lehen aurkeztu beharko da.

Onuradunak hitzarmena bete ezean, Transferentzia Arrunten Funtsetik hirugarren banaketatik aurrera ordainduko den urteko kopuruaren 100eko 100rainoko atxikipena egin ahalko zaio.

18. artikulua. Elkarte tradizionalen inbertsioetarako dirulaguntza eta onurak.

Bardeako Komunitateak eta Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoako Batzarrek Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Nafarroako Ogasun Publikoaren kargura ezarritako diru-ekarpenak eta gainerako onurak jaso ahal izanen dituzte, beren organo eskudunek onesten dituzten inbertsioetarako.

19. artikulua. 2005-2008rako toki azpiegituren planaren aurreko planei dagozkien kredituak sartzeari.

2005eko ekitaldian sartutako zenbatekoak, 2005-2008rako toki azpiegituren planaren aurreko planetakoak direnak, 2005eko ekitaldia ixtean eman gabe baldin badaude, 2007ko aurrekontuan sartuko dira horretarako gaituko den kontusailean, 8.153.018 euro zehazki.

20. artikulua. Administrazio-berregituraketako prozesuen sustapena.

“Toki enteen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena” izeneko 211002-21400-4609-942300 kontusailak eta “Toki enteen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena” izeneko 211002-21400-7609-942300 kontusailak finantzatzeko dituzte Nafarroako Gobernuak eta

euren zerbitzuak elkartzen dituzten toki entitateek sinatu beharreko hitzarmenetako aurreikuspenak.

“Toki enteen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena” izeneko 211002-21400-7609-942300 kontusaila erabili ahal izanen da mankomunitateen egoitzak edo beren administrazio-zerbitzuak elkarrekin ematen dituzten entitate asoziatiboen egoitzak eraiki eta hobetzeko. Lehen-tasunak 2005-2008rako toki azpiegituren lau urteko planean lortutako kalifikazioen araberrako ordena errespetatuz ezarriko dira.

V. TITULUA Aurrekontuen kudeaketa

21. artikulua. Nafarroako Parlamentuaren, Comptos Ganberaren eta Arartekoaren aurrekontuen zuzkidurak.

Nafarroako Parlamentuaren, Comptos Ganberaren eta Arartekoaren aurrekontuen zuzkidurak kasuko Mahaiak, lehendakariak edo arartekoak eskatu ahala gauzatuko da, irmoki eta aldizka.

22. artikulua. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua eta Nafarroako Kontseilua.

Foru Komunitateko administrazioaren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketari buruzko araudi orokorraren mendean egonen dira Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua eta Nafarroako Kontseilua, beren independentzia organikoari eta funtzionalari kalterik egin gabe.

Halaber, haren jarduketa ekonomiko eta aurrekontuzkoak Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzailetza Orokorren kontrolpean egonen dira, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarentzat eta haren erakunde autonomoentzat ezarrita dagoen modu berean.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilurako eta Nafarroako Kontseilurako transferentzia arruntak, oro har, hiru hilabeteko aurrerapenarekin libratuko dira, behar handiagoak justifikatzen ez bada, behintzat.

Kapital transferentziak lehendakariak eskatzen dituzten neurrian libratuko dira, haiek eskatzea eragin duen gastuaren beharra justifikatuta.

23. artikulua. Nazioarteko Erakusketa, Zaragoza 2008.

Gobernuaren Eledunaren Bulegoa-Toki Administrazio Departamentuko Komunikazio Zuzendaritza Nagusiko “Nazioarteko erakusketa, Zaragoza 2008” izeneko kontusailari Nafarroako Pabiloia kudeatu eta sustatzeko beharrezkoak diren lan, inbertsio eta jarduerekin zerikusia duten gastu guztiak aplikatu ahalko zaizkio.

24. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontu zuzkidura.

“NUPen finantzaketa: Iruñeko eta Tuterako Campusa” izeneko 431000-43100-4455-322300 kontusailak epigrafe hauek ditu:

a) Irakaskuntzaren eta ikerketaren finantzaketarako transferentzia arruntak, 48.406.950 euro, oro har hiru hilabeteko aurrerapenarekin eginen direnak.

b) Irakasleen ordainsari osagarriei aurre egiteko transferentzia arruntak, gehienez ere 2.308.050 eurokoak, bi epetan eginen direnak, Unibertsitateko Kudeatzailtzak justifikatu ondoren. Gastua gauzatu dela frogatzen duen dokumentazioa erantsi beharko da, Nafarroako Unibertsitate Publikoko kontu-hartzaileak ontzat emana.

c) Irakaskuntza eta ikerketa proiektuak finantzatzeko transferentzia arruntak, 677.507 euro, Hezkuntza Departamentuaren eta Unibertsitatearen beraren artean adostuak. Diru hori Kudeatzailtzak eskatu eta gero ordainduko da. Gastua gauzatu dela frogatzen duen dokumentazioa erantsi beharko da, Nafarroako Unibertsitate Publikoko kontu-hartzaileak ontzat emana.

d) Tuteran ikasketa presentzialak ezartzeko transferentzia arruntak, 2.170.000 euro, Hezkuntza Departamentuaren eta Unibertsitatearen beraren artean adostuak, Unibertsitateko Kudeatzailtzak justifikatu ondoren eginen direnak. Gastua gauzatu dela frogatzen duen dokumentazioa erantsi beharko da, Nafarroako Unibertsitate Publikoko kontu-hartzaileak ontzat emana.

b) eta d) ataletako zenbateko batzuk ezin badi-ra gauzatu Nafarroako Unibertsitate Publikoak gastuak justifikatu ez dituelako, Hezkuntza Departamentuaren eta Unibertsitatearen beraren artean adostutako irakaskuntza eta ikerketa proiektuak finantzatzeko erabili ahalko dira, Kudeatzailtzak eskaera egiten eta gero.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aldeko kapital transferentziak, Iruñeko eta Tuterako inbertsioak finantzatzeko direnak, Kudeatzailtzak eskatu eta gero eginen dira. Gastua gauzatu dela frogatzen duen dokumentazioa erantsi beharko da, Nafarroako Unibertsitate Publikoko kontu-hartzaileak ontzat emana.

25. artikulua. Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren ikastetxe elkartuen aurrekontu zuzkidura.

a) UHUNeko Iruñeko eta Tuterako ikastetxe elkartuen finantzaketarako transferentzia arruntak,

oro har, hiru hilabeteko aurrerapenarekin libratuko dira.

b) UHUNeko Iruñeko eta Tuterako ikastetxe elkartuentzako kapital transferentziak, haien inbertsioak finantzatzeko, zuzendaritzak eskatuta libratuko dira. Eskabideari kasuan kasuko gastua betetzea justifikatzen duen dokumentazioa erantsi beharko zaio.

26. artikulua. Herrietako kontsultategientzako dirulaguntzak.

547000 zenbakiko proiektuan jasota dagoen “Oinarritzako osasun laguntzako zentroak eraiki eta zaharberritzeko transferentziak” kontusaileko kredituekin –herrietako osasun etxeak eraiki eta moldatzeko baita– horrelako gastuetarako ehuneko 100eko dirulaguntza emanen da, baina dirulaguntza horiek emateko deialdian Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak onetsiko dituen arauoinarrietan ezarriko dituen baldintzak eta mugak gainditu gabe betiere.

Herrietako kontsultategien ekipamenduaz Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua bera arduratuko da zuzenean.

27. artikulua. Organo transplanteen sustapena.

Azken zenbatekoa, ospitaleetan jasotzen dena, organo transplanteen sustapena egiteko bada, erabili ahalko da bai ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuetan bai ondasun inbentariagarrietako gastuetan ere, jasotako diru horren xedearekin zerikusia baldin badute betiere.

28. artikulua. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aurrekontuetako aldaketak.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren esparruan, bertako zuzendari kudeatzailak baimena eman ahal du Nafarroako ogasun publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 46.2. artikuluan aipatzen diren aurrekontu aldaketak egiteko.

29. artikulua. Sindikatuak eta enpresaburuen elkarteak.

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuaren aurrekontuan sindikatuentzat esleitutako gastua banatzeko, bakoitzak Nafarroan duen ordezkari mailari jarraituko zaio, eta horretarako 2003ko urtarrilaren 1etik 2006ko abenduaren 31ra bitartean egindako hauteskundeetako eta boto-kontaktetako aktetan adierazitako emaitzak hartuko dira kontuan; azken data horretan ordezkari aginte indarduna izan beharko dute.

Halaber, “Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik bertan dauden langile-sindikatuak, gizarte-ekonomiako elkarteei eta enpresaburu-elkarteei egin beharreko ordainketa” izeneko kontusaila, haietako bakoitzak aipatu kontseiluan duen kide kopuruaren arabera banatuko da aipatu entitateen artean.

Era berean, “Sindikatuaren hauteskunde prozesua jarraitzeko batzordea osatzen duten sindikatuak bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa” izeneko kontusaila urriaren 3ko 182/1994 Foru Dekretuaren bidez sorturiko batzorde horretan parte hartzen duten sindikatuaren artean banatuko da, bertan duten kide kopuruaren arabera.

Halaber, “Gizarte ekonomiako ANEL entitateak sustatu eta mantentzea” izeneko kontusaila Nafarroako Lan Enpresen Elkarte (ANEL) izenekoaren azpiegitura eta mantentze-lanen gastuak ordaintzeko erabiliko da, gizarte ekonomia bultzatu, garatu, sustatu eta indartzeko xedea bete dezan.

30. artikulua. Gastu konpromisoak etorkizuneko aurrekontuen lagura.

1. Hezkuntza Departamentuak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurakoak, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lanekoak, Osasunekoak eta Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoak, zeinek bere eskumenen esparruan, beka eta dirulaguntzak eman ditzakete ikertzaile eta artisten prestakuntza eta espezializaziorako, hezkuntza berezarako, Foru Komunitateko solaskideen egitaraurako, eta Nafarroarentzat interes berezia duten proiektuak egiteko. Xede horretarako, gastu konpromisoak hartu ahalko dituzte, kasuko ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen kargura, baldin eta esandako konpromisoek gainditzen ez badituzte aurreko ekitaldian xede horretarako finkatu ziren zenbatekoak. Gastu konpromiso berbera, muga horiexekin, hartu ahal du Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak, laguntza hauek emateko: enpresen lehiakortasunerako laguntzak –maiatzaren 23ko 208/1991 Foru Dekretuan arautuak–, eskualdez gairako elkarlan proiektuetarako dirulaguntzak, eta Estatuak eskualdatutako “Lantegi eskolak eta lanbide etxeak” programetako laguntzak –Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren 2001eko azaroaren 14ko Aginduan arautuak–. Era berean, Hezkuntza Departamentuak, eskola garraioa eta eskola jantokiak zerbitzua kontratatzeko.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak gizarte-ekintzako alorrean prestatzeko jardueretarako laguntzak eman ahalko ditu, horre-

tarako etorkizuneko ekitaldien kargura konpromisoak hartuz, aurreko ekitaldian helburu horretarako esleituriko kopuruak gairatu gabe betiere.

2. Nafarroako Gobernuak baimena eman ahalko du hurrengo ekitaldietara luzatuko diren gastu konpromisoak hartzeko –Nafarroako ogasun publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak baimentzen dituenak baino gehiago–, transferentzia arruntak barne, Europar Batasuna finantzakide izan eta hiru urtetik goitiko plangintza izan behar duten plan, programa eta ekimenei aurre egiteko, bai eta haiek sortutako betebeharreri ere.

3. Toki Administrazioako Departamentuak dirulaguntza arruntak eman ahalko dizkie toki entitateei, administrazioaren berregituraketarako eta kalitate eta modernizazio planerako, horretarako gastu konpromisoak hartuko ditu gastua hasten den ekitaldiaren hurrengo hiru ekitaldien kargura. Gastu konpromiso horiek ezin izanen dituzte gairatu Nafarroako Gobernuak ekitaldi bakoitzerako finkatzen dituen mugak.

4. Toki Administrazioako Departamentuak dirulaguntza arruntak eman ahalko ditu ikus-entzunezkoak ekoizteko, horretarako gastu konpromisoak hartuko ditu gastua hasten den ekitaldiaren hurrengo hiru ekitaldien kargura. Gastu konpromiso horiek ezin izanen dituzte gairatu Nafarroako Gobernuak ekitaldi bakoitzerako finkatzen dituen mugak.

5. Nafarroako Gobernuak ekitaldi bakoitzean finkatzen dituen mugen barruan, Hezkuntza Departamentuak hurrengo ekitaldien konturako gastu konpromisoak hartu ahalko ditu, Nafarroako ogasun publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak baimenduriko mugetatik harata, Tuterako Udalaren eta Hezkuntza Departamentuaren arteko hitzarmena finantzatzeko. Hitzarmen horren bitartez, Tuterako Fernando Remacha udal musika eskolan matrikulatzen diren ikasleak erdi mailako ikasketetan sar daitezzen errazten da.

6. Herrietako kontsultategiak eraiki eta zaharberritzeko dirulaguntzak emateko –547000 proiektuko “Oinarrizko osasun laguntzako zentroak eraiki eta zaharberritzeko transferentziak” kontusailen bilduak–, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak gastu konpromisoak hartu ahalko ditu, dagoen ekitaldiaren hurrengoetako aurrekontuen kargura, baldin eta urteko konpromiso horiek guztiek aurreko ekitaldian xede horretarako finkatu den zenbatekoa gairatu ez badute.

7. Nafarroako Gobernuak kasuan kasuko ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen konturako gastu

konpromisoak hartu ahalko ditu, garraio zerbitzu publikoen titular diren enpresei ordainak emateko.

8. Nafarroako Gobernuak ekitaldi bakoitzean finkatzen dituen mugen barrenean, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak hurrengo ekitaldien konturako gastu-konpromisoak hartu ahalko ditu, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak baimenduriko mugetatik haratago, enpresek I+G+B proiektuak finantzatzeko hitzartzen dituzten kreditu edo maileguen korrituetan hobariak emateko, laguntza gisa.

9. Nafarroako Gobernuak dagokion ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen konturako gastu konpromisoak hartu ahalko ditu, Garapenerako lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen eta martxoaren 9ko 95/1992 Foru Dekretuaren babesean laguntzen diren garapenerako lankidetzaren proiektuak finantzatzeko, baldin eta, bideragarriak izateko, ekitaldi batetik goitiko baina hiru urte-tik beherako plangintza ezinbestekoa baldin bada.

10. Jarraibidetzat harturik Oinarrizko Errenta arautzen duen apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretua eta Gizarte Enplegu Babestua arautzen duen apirilaren 26ko 130/1999 Foru Dekretua, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak konpromisoak hartu ahalko ditu, etorkizuneko ekitaldi-etako aurrekontuen kargura, betiere konpromiso horiek legezko xedapenetan ezarritako mugak gainditzen ez badituzte.

11. Erditze berean bi haur edo gehiago izan dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen ekainaren 27ko 241/2000 Foru Dekretuan eta langileek laneko eta familiako eginbeharrak batera eramateko eta, jaiotzak sustatzeko neurri osagarri gisa, zuzeneko dirulaguntzak arautzen dituen ekainaren 27ko 242/2000 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, Familia Zuzendaritza Nagusiak gastu konpromisoak hartu ahalko ditu etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuen kargura, betiere konpromiso horiek legezko xedapenetan ezarritako mugak gainditzen ez badituzte.

31. artikulua. Europar Batasuneko programen aurrekontuetako aldaketak.

Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak proposaturik, aurrekontuetan behar diren aldaketak egiteko baimena eman ahal du, ekitaldian zehar Europar Batasunak kofinantzatutako programa eta proiektuak ahalik eta hobekien burutzeko, Europako Batzordeak hasierako dokumentuan onetsitakoari edo ondoren jarraipen batzordeek edo Europar Batzordeak berak eginiko aldaketei jarraituz. Aurrekontu aldaketa horiek gas-

tuen egoera-orrietan agertzen diren edozein mota-tako kredituen bidez finantzatu beharko dira.

32. artikulua. Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak.

Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariaren ohiko jardunerako behar diren gastu guztiak kutxa finkoko aurrerakinekin edo, hala bada, justifikatu beharreko ordain-aginduekin ordainduko dira.

Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak arestian esandako gastu eta ordainketak baimendu ahalko ditu, eta Europako Aferen eta Plangintzaren zuzendari nagusiaren alde aurreko baimena beharko du 12.000 euro baino gehiago-koak direnentzat.

33. artikulua. Ikerketa proiektuak.

Osasun Departamentuak sustaturiko osasun zientzien arloko ikerketa proiektuak haren inbertsio berekizat joko dira, eta ez zaie aplikatuko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea.

Aipaturiko proiektuak deialdi publikoaren ondorioz horretarako eskaera egiten dutenen artetik hautatuko dira, batzorde tekniko batek proposaturik. Batzorde horren osaketa aipaturiko deialdian zehaztuko da.

34. artikulua. Jabari pribatuko ondasunak ematea.

Nafarroako ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legearen 11.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari jabari pribatuko ondasunak eta, bereziki, Nafarroako Gobernuarenak diren akzioak Foru Komunitateko sozietate publikoei edo kapital-lean Foru Komunitatearen partaidetza duten merkataritza sozietateei emateko, aipatu aginduan ezarritako gehieneko kopurua gaindituta ere.

35. artikulua. Onura fiskalarako kontusailak.

Izen hauek dituzten kontusailak: "Etxebizitza-errentamenduen zerga-gastuak", "Ohiko etxebizitza-errentarako inbertsioaren zerga-gastuak", "Enplegu sorreraren zerga-gastuak", "Inbertsioen zerga-gastuak", "Inbertsioen zerga-gastuak. Prever plana", "I+G+Bko inbertsioen zerga-gastuak", "Alarguntza pentsioengatikoen kenkarietatik sorturiko zerga-gastuak", "Zaintzaileen kotizazioengatikoen kenkarietatik sorturiko zerga-gastuak", "Aurreikuspen sozialeko sistemarako ekarpenengatikoen zerga-gastuak" eta "Interes kulturalen ondasunetako inbertsioen gastu fiskalak", zertarako onartu diren hartarako baizik ezin dira erabili, hots, haiei loturiko onura fiskala biltzeko. Ez dira gutxituko, ez aurrekontu-

doiketagatik ere, beste inolako xederik finantzatzeko.

36. artikulua. Diruz lagundutako eta itundutako ikastetxeen sostengua.

1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 117. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren diru-kopurua hamahirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa izanen da 2007. urterako, diruz lagundutako eta itundutako ikastetxeen sostengurako funts publikoen zenbateko osoa banatzeari dagokionez.

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, irakaskuntza itunduko sektorearekin adostu ondoren, hamahirugarren xedapen gehigarriko modulu ekonomikoak eta artikulua honetako laugarren eta bosgarren idatz-zatietako kuotak aldatzeko, bai eta irakaskuntza itundurako kontusailtako kredituak gehitzeko ere akordio hori betetzeko behar beste zenbatekoan; horren xede dira ordainsarrietan egin beharreko igoerak, ituntzearen xede den hezkuntza maila bakoitzean indarra duen ikasketa plana irakasteko behar diren irakasle/unitate itundu erlazioak, antzintasuna, zuzendaritza karguetako osagarriak eta hezkuntzaren kalitatea hobetzen lagunduko duen beste edozein alderdi. Kreditu handitze hori ez da inolaz aurrekontu aldatzat hartuko Nafarroako ogasun publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988ko Foru Legeak agintzen duenari dagokionez.

Irakasleen ordainsariei buruzko aurreikuspenek, hamahirugarren xedapen gehigarrian jasotakoak, 2006ko urtarrilaren 1etik hasita izanen dute indarra, irakaskuntza pribatuaren hitzarmen kolektiboak onesten diren datak horretan eraginik izan gabe. Administrazioak konturako ordainketak onartu ahalko ditu ugazaben erakunde guztiek espresuki horrela eskatu ondoren eta sindikatuak entzun ondoren, kasuan kasuko hitzarmena izenpetu arte. Konturako ordainketa horiek 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dute eragina.

“Beste gastu batzuetarako” eta, hala balitz, langile osagarrietarako moduluko osagaiak -hamahirugarren xedapen gehigarrian jasotakoak- 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

Irakasleen soldatetarako ezartzen diren zenbatekoak, gizarte-prestazioen kargak barne, administrazioak ordainduko ditu zuzenean ordainketa delegatuaren bidez, irakasleen eta dagokien ikastetxeko titularraren arteko lan harremana galarazi gabe.

“Beste gastu batzuetarako” diru kopuruak ikastetxe itunduei ordainduko zaizkie, eta horiek ikas-

turtea bukatzean justifikatu beharko dute aplikatu direla.

“Gastu aldakorrak” osatzen dituzten zenbatekoen banaketa itunen araubideari buruzko xedapenetan ezarritakoaren arabera egingen da.

2. Egun, Nafarroan irakasten ez direnez berarizko lanbide heziketako titulu guztiak, Hezkuntza Departamentuak behin-behinekoz finkatuko ditu 2007/2008 ikasturtean lehenengo aldiz ezarriko diren eta hamahirugarren xedapen gehigarrian sarturik ez dauden erdi edo goi mailako heziketa ziklo eta lanbide hastapeneko programetako modulu ekonomikoak, eta aipaturiko xedapen gehigarri horretan sartutakoak behin-behinekoz aldatu ahal izanen ditu; aldaketa horiek 2007/2008 ikasturtearen hasieran izanen dituzte ondorioak, haien ezarpena zein den ikusita.

3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloa, Batxilergoa, Goi Mailako edo Erdi Mailako Heziketa Zikloak eta Gizarte Garantiako Programak ezarri dituzten ikastetxeei Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organiko 2.2 artikulua aipatzen dituen hezkuntza, psikopedagogia eta lanbide orientazioko zerbitzu espezializatueterako finantzaketa emanen zaie. Dotazio hori honako proportzioan egingen da: egin-kizun horietan aritzeko gai den profesionalaren lanegun oso bat, aipatu hezkuntza maila horietako 25 unitate itunduko. Hortaz, ikastetxe itunduek eskubidea izanen dute aipatu profesionalaren lanegun horren finantzaketa jasotzeko, maila horretan itunduta daukaten unitate kopuruaren arabera.

4. Goi mailako heziketa zikloetako itun berezia partziala izanen da; hortaz, goi mailako heziketa zikloetako derrigorrezko irakaskuntzakoa ez den mailarako izenpetzen diren itun berezi partzialen araubideari esleitutako funts publikoetatik datorren finantzaketaren finantzaketa osagarriaren kontzeptuan ikasleengandik jasotzekoa den kopurua, irakaskuntza arautuko kontzeptuan soilik, hileko 37,42 eurokoa izanen da ikasleko, eta hamar hila-betez emanen da, 2007ko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte, eta urte bereko irailaren 1etik abenduaren 31ra bitarte. Salbuetsirik daude Lantokietako Lanbide Heziketa baizik ez duen ikastaroan matrikulaturiko ikasleak, 32,45 euro ordainduko baitute, ikasleko eta hileko, 2007/2008 ikasturtean Lantokietako Lanbide Heziketak irauten duen hiruhilekoan.

Goi mailako heziketa zikloetan sartu ahal izateko prestakuntza ikastarorako itun berezia partziala izanen da; hortaz, goi mailako heziketa zikloetan sartzeko derrigorrezko irakaskuntzakoa ez den

prestakuntza ikastarorako izenpetzen diren itun berezi partzialen araubideari esleitutako funts publikoetatik datorren finantzaketaren finantzaketa osagarriaren kontzeptuan ikasleengandik jasotzekoa den kopurua, irakaskuntza arautuko kontzeptuan soilik, hileko 26,53 eurokoa izanen da eta hamar hilabetez emanen da, 2007ko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte, eta urte bereko irailaren 1etik abenduaren 31ra bitarte.

Ikastetxeek ikasleei diru kopuru horiek kobratzearen ondorioz eskuratzen duten finantzaketa erabiliko da modulu ekonomikoko "bestelako gastuak" deitutako kapitulurako eta, beraz, administrazioak "bestelako gastuak" delako atalaren kopurua osatzeko falta den kopurua baizik ez du ordainduko.

5. Zuzendaritzako eginkizunetan laguntzeko, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian xedaturikoarekin bat, finantzaketa baten beharra dago. Hori dela-eta, hezkuntza maila eta modalitate guztietako eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomiko guztiek (foru lege honetako hamahirugarren xedapen gehigarria), lantokietako prestakuntza soileko unitateak izan ezik, "bestelako gastuak" kontzeptuan 675,79 euroko kopurua daukate urtean, zuzendaritza edo/eta pedagogiako eginkizunetako beste kargu batzuk finantzatzeko. Hori dena zuzendaritzako osagarriaz gain, "gastu aldakorrak" izeneko atalean sarturik baitago.

6. Haur hezkuntzan eta derrigorrezko hezkuntzetan hezkuntza premia bereziak dituzten edo sozialki nahiz kulturalki kaltetutako egoeran dauden ikasleak dituzten ikastetxe itunduek bestelako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak izanen dituzte: laguntza irakasleak, logopedia zerbitzuak eta zaindariak edo bestelako pertsonal osagarria, ikasle horiez arduratzeko.

Baliabide horiek esleitu dira beharrezkoak diren txosten teknikoak izanik, Hezkuntza Departamentuak onetsiriko deialdi publikoa egin ondoren.

37. artikulua. Hezkuntza Departamentuak 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko udalekin dituen hitzarmenen kredituen kudeaketa.

Funts mugimenduak egin ahal izanen dira bi kontusail hauen artean: 410000-41100-4609-322504, "Udalekiko hitzarmenak, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko" izenekoak, eta 410001-41120-7609-325102, "Udalekiko hitzarmenak, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko" izenekoak. Mugimendu horiek ez dituzte Nafarroako ogasun publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legean ezarritako mugak izanen; 39. artikulutik 53. artikulura bitartean -biak barne- ezarritako mugak hain zuzen.

Aipatutako funts mugimendu horiek baimentzeko eskumena Ekonomia eta Ogasun kontseilariarena izanen da.

38. artikulua. Ikastetxeetako azpiegituren plan zuzentzailearen kudeaketa.

Funts mugimenduak egin ahalko dira bi kontusail hauen artean: 410001-41120-6020-325100, "Eraikin berriak egitea eta egokitze lanak" izenekoak, eta 410001-41120-7609-325103, "Eraikin berriak egitea eta egokitze lanak" izenekoak. Mugimendu horiek ez dituzte Nafarroako ogasun publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legean ezarritako mugak izanen, 39. artikulutik 53. artikulura bitartean -biak barne- ezarritako mugak hain zuzen.

39. artikulua. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak diruz lagundutako eskola jantokietan zerbitzuak ematen dituzten irakaskuntzako langileen diru-konpentsazioak.

1. Derrigorrezko irakaskuntza mailetan Nafarroako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako eskolako jantokiak arautzen dituen uztailaren 24ko 246/1991 Foru Dekretuan eta dekretu horretan xedatutakoa garatzeko Hezkuntza eta Kultura kontseilariak maiatzaren 11n emaniko 186/1993 Foru Aginduan xedatutakoari jarraikiz, jantokiko administrazioaile, arduradun edo zaintzaile lanetan aritzen diren irakaskuntzako langileek honako ordainsari gordin hauek jasoko dituzte ikasturte bakoitzeko:

Baimendutako gehieneko konpentsazioak, zenbateko gordinean. 2006/2007 ikasturtea			
Bazkaltiar kopurua	Jantokiko arduraduna	Administratzailea	Zaintzaile bakoitza
0-80	1.880,49 euro	1.662,61 euro	1.880,49 euro
81-160	2.099,79 euro	1.662,61 euro	1.880,49 euro
161-240	2.251,14 euro	1.863,01 euro	1.880,49 euro
+240	2.328,77 euro	2.134,70 euro	1.880,49 euro

2. 40 bazkaltiar arteko jantokietan, jantokiko arduradunaren eta administratzailearen eginkizunak pertsona berak beteko ditu, eta eginkizun horietako bakar batengatik jasoko ditu bere lansariak.

3. Haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta derrigorrezko irakaskuntzako institutuetan, Hezkuntza Departamentuak baimentzen badu jantokiaren funtzionamendua irailan eta ekainean, arduradunak, administratzaileak eta zaintzaile irakasleak hilabete horietan ere jasoko dute baimendutako gehieneko konpentsazioen zatia.

4. Hezkuntza Departamentuak baimenduta, jantokiko zerbitzua jardun bakarreko egunetan (asteazkenetan, ekainean eta irailan) ematen duten hezkuntza bereziko ikastetxeetan, arduradunak, administratzaileak eta zaintzaile irakasleak egun horietan ere jasoko dute baimendutako gehieneko konpentsazioen zatia.

5. Artikulu honetan ezarritako lansariak hurrengo ikasturtean gaurkotuko dira, Nafarroako Foru Komunitatean maiatzean izandako Kontsumoko Prezioen Indizi Ofizialari dagokion portzentajea.

40. artikulua. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza hobetzeko neurriei buruzko 26/2002 Foru Legearen 12.3 artikulua aldaketa.

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza hobetzeko neurriei buruzko 26/2002 Foru Legearen 12. artikulua 3. idatz-zatia aldatu da. Edukia hauxe izanen da aurrerantzean:

“3. Nafarroako Gobernuak Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) lortzeko izangaien epaimahaien eta hautapen organoen jardueretan parte hartzen duten funtzionario publikoek eta lan kontratadunek, bai eta araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzetako maila ziurtatzeko azterketak prestatzen eta zehazten parte hartzen dutenek ere, irakasleak hautatzeko epaimahaietan parte hartzeagatik aurreikusitako konpentsazioak jasoko dituzte.”

VI. TITULUA Kontratazioa

41. artikulua. Kontratazioaren arloko eskurantzak.

Garraio zerbitzuak kontratatzeko eta garraio jarduerak xede dituzten dirulaguntzak emateko, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Garraio Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena eman beharko du aurretik, derrigorrez.

42. artikulua. Erakunde autonomo jakin batzuetako hornidura kontratuak.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen menpeko zentroek produktu freskoak erosi ahalko dituzte, hornitzaileei eskaintzak eskatuz hamabostean behin, urteko esleipenera jo beharrik gabe.

2. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak produktu freskoak erosi ahalko ditu bere menpeko zentroetarako hornitzaileei lau hilean behin eskaintzak eskatuz, urteko esleipenera jo beharrik gabe.

43. artikulua. Bermeak ematea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko 33.2 artikuluan aipaturiko bermeematea ez zaie aplikatuko Berrikuntza eta Teknologia Zentroe, baldin eta halakotzat aitortuak izan badira Berrikuntza eta Teknologia Zentrozen erregistroa arautzen duen abenduaren 20ko 2609/1996 Errege Dekretuari jarraituz.

Lehen xedapen gehigarria. Transferentzien Batzordea.

Abenduaren 19ko 2356/1984 Errege Dekretuak ezarritako Transferentzien Batzordean Nafarroako Gobernuak duen ordezkartzan Parlamentuko talde guztiek izanen dute ordezkartza, espresuki hala eskatuta badute, edo hala eskatzen badute. Estatuko zerbitzuen transferentziari Nafarroako Gobernuaren ordezkartzak adostasuna emateko, talde parlamentarioen ordezkari gehien botoa beharko da haren alde, eta horretarako, ordezkari

bakoitzak bere taldea osatzen duten foru parlamentari adina boto izanen du.

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen eta estatutupeko langileen 2006ko lansarien behin betiko igoera.

2006ko ekitaldirako Nafarroako Gobernuaren aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 18/2005 Foru Legearen 7.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Nafarroako Gobernuak kalkulatu eginen du 2006ko ekitaldian Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioei eta estatutupeko langileei behin betikoz aplikatuko zaien lansari igoera orokorra, 2006ko uztailean administrazioak eta sindikatuek Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen lan baldintzei buruz 2006. eta 2007. urteetarako izenpetu zuten akordioa aplikatuta eta sektore publikoaren zerbitzuko langileriak eragindako gastuen arloan jarduera ekonomikoaren planifikazio orokorraren oinarriei eta koordinazioari buruzko xedapenetan ezarritako igoera administrazio horien lansari sistema berariazkora egokitzearen ondoriozko mugen menpean.

Hirugarren xedapen gehigarria. Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen eta estatutupeko langileen 2007ko lansarien behin betiko igoera.

Nafarroako Gobernuak kalkulatu eginen du 2007ko ekitaldian Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioei eta estatutupeko langileei behin betikoz aplikatuko zaien lansari igoera orokorra, 2006ko uztailean 21ean administrazioak eta sindikatuek Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen lan baldintzei buruz 2006. eta 2007. urteetarako izenpetu zuten akordioa aplikatuta eta sektore publikoaren zerbitzuko langileriak eragindako gastuen arloan jarduera ekonomikoaren planifikazio orokorraren oinarriei eta koordinazioari buruzko xedapenetan 2007rako ezarriko den igoera administrazio horien lansari sistema berariazkora egokitzearen ondoriozko mugen menpean.

Laugarren xedapen gehigarria. Hezkuntza Departamentuko irakaskuntza ez-unibertsitarioan diharduten langileen ordainsari osagarrien igoera eta egokitzapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru dekretu bidez ezar dezan zein den Hezkuntza Departamentuko irakaskuntza ez-unibertsitarioan diharduten langileek jaso beharreko irakaskuntzako osagarri berariazkoaren igoera, 2006ko uztailean 21ean administrazioak eta sindikatuek Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen lan baldintzei buruz 2006. eta 2007. urte-

etarako izenpetu zuten akordioaren 2. ataleko B) eta C) letretan xedatutakoa aplikatuta.

Bosgarren xedapen gehigarria. Nafarroako toki entitateen zerbitzuko funtzionarioen lansari osagarrien egokitzapena.

Nafarroako toki entitateen zerbitzuko funtzionarioei aplikatzekoa izanen zaie Nafarroako Gobernuak lansari osagarrietan ezarriko duen igoera, 2006ko uztailean 21ean administrazioak eta sindikatuek Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen lan baldintzei buruz 2006. eta 2007. urteetarako izenpetu zuten akordioaren 2. ataleko C) letretan xedatutakoa aplikatuta.

Seigarren xedapen gehigarria. Hautapen probetarako deialdia Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoan.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, Ogasuneko teknikari lanpostua lortzeko hautapen proben deialdietan, 2007. urtean eta hurrengoetan egin beharrekoetan, salbuespena ezarri ahalko da, igoera txandan parte hartzen duten ogasuneko kudeatzaile eta ikertzaile laguntzaileen postuetako titularrentzat, haiek daukaten lanpostua lortzeko deialdian behar beste egiaztatutako ezagutza eskatzen duten arloetan.

Halakoetan, kasuko deialdian ezarritako igoera txandako lanpostuen 100eko 50, gehienez, gordeko da funtzionario horientzat. Erreserba horretan, probak gainditzen dituzten izangaiak lanpostu hutsak baino gehiago badira, probak gainditu baina lanpostua lortzen ez dutenek ezin izanen dituzte hartu igoera txandako gainerako lanpostuak edo txanda irekiko lanpostu hutsak. Hala ere, igoera txandako gainerako lanpostuetako batzuk edo txanda irekikoak hutsik gelditzen badira, aipatu erreserbakoei gehitu ahalko zaizkie.

Atal honetan araututako erreserbaren bidez lanpostua lortzen duten funtzionarioek lehentasuna izanen dute, igoera txandako gainerako izangaien aurretik, lanpostu hutsak hautatzerakoan.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Udal eta Kontzejuei aurrerakinak eta gerorapenak ematea.

1. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio udal eta kontzejuei ondokoak emateko, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bidez, salbuespen gisa eta Toki Administrazioiko Departamentuak txostena eman ondotik:

a) Tributuetan parte hartzeko funtsaren transferentzia arruntei dagozkien aurrerakinak, hiruhileko baten zenbatekoaren kontura, ekitaldi ekonomikoaren azken hiruhilekoan itzuli beharrekoak.

Toki entitatearen egoera ekonomiko-finantzarioak erakusten badu komeni litzatekeela neurri bereziak hartzea, eman daitekeen konturako aurrerapena bi hiru hilekorako zenbatekoa adina-koa izan daiteke gehienez ere, eta ekitaldi ekonomikoaren hurrengo hiruhilekoetan itzuli beharko da.

b) Banaketa-kontuan jasota egon eta muga-eguna gaudituz duten zorren ordainketa geroratzea.

2. Aurrerakin eta gerorapen horiek bakar-bakarrik diruzaintzan unean uneko arazo larriak gertatuz gero emanen dira.

3. b) letraren kasuan, entitate eskatzaileak gaurkotuak izan behar ditu, indarra duen araudia-ekin bat, hirilurraren gaineko kontribuzioa baloratzeke ponentziak; hirilurraren gaineko kontribuziorako gutxieneko zerga-tasa 0,28 izan da eta landalurraren gaineko kontribuziorako, berriz, 0,60, edo lurralde kontribuzio bateratukoa 0,30.

Zerga-gerorapenatarako ezarritako interes-tasa aplikatuko da, baina Ekonomia eta Ogasun kontseilariak bere esku izan du aldatzea, entitate eskatzailearen egoera ekonomiko-finantzarioaren arabera

Zortzigarren xedapen gehigarria. Hondakin uren saneamendu kanonaren tarifak.

1. Hauek dira 2007ko ekitaldian aplikatuko diren saneamendu kanonaren tarifak:

a) Uraren etxeko erabilerei aplikatzekoa zaiem karga tasak: 0,35 euro/metro kuboak.

b) Etxekoak ez diren erabilerei aplikatzekoa zaien karga-tasak:

b.1. Etxekoak ez diren erabileretarako saneamenduko sare publikoei lotutakoak: 0,44 euro/metro kubikoa. Karga kutsatzaileari dagokion indize zuzentzailea aplikatuko da, hala behar denean, apirilaren 5eko 82/1990 eta maiatzaren 22ko 191/2000 Foru Dekretuetan ezarritakoaren arabera. Arazketarako instalazioak kofinantzatzen direnean, Toki Administrazioiko Departamentuak koefiziente zuzentzaile bat jarri ahalko du tarifiari; horren aplikazioa hitzarmenez eginen da.

b.2. Etxekoak ez diren erabileretarako saneamenduko sare publikoei loturik ez daudenak eta beharrezkoak diren baimen administrazioak dituztenak, erakunde eskudunek emanak: 0,06 euro/metro kuboak. Ibilgu publikora isurtzeko baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, aurreko b.1 letran ezarritako tarifa aplikatuko da.

2. Arazketa-instalazio pribatuetatik datozen lohiei, baldin eta onartzen badira Nafarroako ibaien saneamendurako plan zuzentzaileari atxikitako hondakin-uren araztegiengan, tarifa bat aplikatuko zaie tratatuak izateagatik; hain zuzen ere, 7,00 euro metro kuboko.

3. Aurreko zenbatekoei balio erantsiaren gaineko zerga gehituko zaie.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. IPREM Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren aipamenak.

Etxebizitzari babes publikoa emateko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legean eta haren garapenerako xedapenetan lanbide arteko gutxieneko soldata aipatzen denean, IPREM Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoa aipatzen dela ulertuko da, zeina arautzen baitu ekainaren 25eko 3/2004 Errege Lege-dekretuak, lanbide arteko gutxieneko soldataren arautegia arrazionalizatu eta soldata horren kopurua igotzeari buruzkoak.

Hamargarren xedapen gehigarria. Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari hamabigarren xedapen gehigarria erantsi zaio. Hauxe da horren edukia:

“Hamabigarren xedapen gehigarria. Etxebizitza babestua foru lege honen 18. artikuluan 3. idatz-zatiko a), b), e) eta f) letretako erreserben bidez eskuratzen duten eskatzaileak salbuetsirik daude gutxieneko dirusarrerak frogatzeko betebeharretik.”

Hamaikagarren xedapen gehigarria. Etxebizitza babestua eskuratzeko baldintzak betetzen direla frogatzea.

Foru lege honek indarra hartu ondoren etxebizitza babestua eskuratzeko egiten diren deialdi publikoetan parte hartzen duten eskatzaileek frogatu beharko dute eskabideak aurkezteko epea hasten den egunean betetzen dituztela Nafarroako etxebizitzari babes publikoa emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legea dirusarreraren arloan ezarritako baldintzak, salbu eta etxe-aldaren kasuan, horietan berariaz aplikatzekoa zaien arautzeak izanen baitu eragina.

Hamabigarren xedapen gehigarria. Aurrekontuko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio, ingurumen, hirigintza eta etxebizitza arloetan toki entitateei laguntzeko bulegoen sarea ezartzeak sortutako gastuak behar bezala aplikatzeko beharrezkoak diren kontusailak gaitu edo/eta gehitzeko

310 eta 320 programen barruan. Kontusailen gaitze edo/eta gehitze horiek ez dira inola ere aurrekontu aldaketatzat hartuko.

Finantzaketa, betiere, 310 eta 320 programetan sarturik dauden kontusailen kargura eginen da, kontusail horiek handitu ahal direnetakoak ez badira.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. Itundutako ikastetxeen sostengurako funts publikoak banatzeko modulu ekonomikoak.

Hezkuntza maila nahiz modalitate ezberdinetan itundutako ikastetxeen eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoen urteko zenbatekoak honela daude banatuta: “Irakasleen soldatak, gizarte-prestazioen kargak barne”, itundutako unitate bakoitzeko irakasle titular eta agregatuen ratioa zehaztuta; “Gastu aldakorrak” eta “Bestelako gastuak”; kontzeptu bakoitzak modulu osoan duen porzentajea adierazita. Zenbateko horiek I. eranski-nean ageri dira.

“Irakasleen soldatak, gizarte-prestazioen kargak barne” kontzeptuan biltzen da irakasleen ordainsarien eta beren gizarte kargen ondoriozko kostua, irakaskuntza mailen arabera.

“Gastu Aldakorrak” kontzeptuan azaltzen dira irakasleen antzinatasunaren kostua eta Gizarte Segurantzaren duen eragina, irakasleen ordezkapenen kostua, zuzendaritzako osagarriarena eta Langileen Estatutuaren 68.e) artikuluan ezarritakoaren ondoriozko betebeharrarena; horretaz gainera, honako arlo hauek finantzatzeko diru kopuruak ere azaltzen dira: Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan, Batxilergoan eta Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloetan irakasleen asteko ordutegian bi irakastordu murrizteko finantzaketa; Lehen Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian astean irakastordu bat murrizteko finantzaketa; eta Haur Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan, 2007. urte osoan, astean irakastordu bat murrizteko finantzaketa, bai eta asteko bigarren irakastordua bi maila horietan, 2007ko irailaren 1etik abenduaren 31ra, Nafarroako Foru Komunitateko Irakaskuntza Itunduan Lan Baldintzak ezartzeari buruzko Akordioan (2002ko abuztuaren 26koan) zehaztu bezala. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legeak eman du akordio horretarako bidea.

Diru kopuru horiek funts orokor batean bilduko dira, eta hori banan-banan banatuko da ikastetxe itunduetako irakasleen artean, irakasle bakoitzaren egoeraren arabera.

Hamalaugarren xedapen gehigarria. Irakasleen diru-ordainak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zerbitzuko irakasleek prestakuntza jardueraren batean irakasle gisa parte hartzen badute, dela Hezkuntza Departamentuak urtero prestatzen duen Irakasleak Prestatzeko Planean biltzen direnak, dela Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendaritza Nagusiak edo Irakasleentzako Laguntza Zentroek zuzenean antolatutakoak, diru-ordain bat jaso ahal dute, betiere jardura hori kasuan kasuko lanalditik kanpora egiten badute. Diru-ordain hauek izanen dituzte:

a) Aurrez aurreko prestakuntza:

a.1. Ponentzia bakoitzeko, hots, aditu batek prestakuntza jardura batean ematen duen eskola ordu bakoitzeko, 60,60 euro ordainduko dira, gehienez.

a.2. Konferentzia bakoitzeko, hots, aditu batek zientzia, teknika edo gizarte gai interesgarri bati buruz ematen duen jendaurreko hitzaldia, 90 minutik gorakoa, 370 euro ordainduko da gehienez.

b) Urrutiko prestakuntza:

b.1. Urrutiko prestakuntza jardueretan koordinatzaile telematiko gisa parte hartzeagatik 1.073 euroko ordaina emanen da gehienez, guztira bost tutore koordinatzeagatik. Koordinatu beharreko tutoreak bost baino gutxiago baldin badira, koordinatzailearentzako lansaria proportzioan kalkulatu da. Koordinatu beharreko tutoreak bost baino gehiago baldin badira, koordinatzaile telematikoak 100,60 euroko lansaria jasoko du tutore bakoitzeko bosgarren tutoretik aurrera.

b.2. Urrutiko prestakuntza jardueretan tutore telematiko gisa parte hartzeagatik 48,03 euroko ordaina emanen da gehienez tutoretzapeko ikasle bakoitzeko.

2. Aurreko atalean adierazitakoa ez zaie aplikatuko Irakasleentzako Laguntza Zentroetan edo irakaskuntza ez-unibertsitarioko prestakuntza jarduerak diseinatu eta garatzen dituzten unitate organikoetan destinoa duten langileei.

3. Prestakuntza jardueretara joateko kilometroei dagokien ordain-saria jasotzeko eskubidea izanen dute, bakar-bakarrik, hezkuntza administrazioak Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiaren Ebazpenaren bidez espresuki aginduta joan behar duten irakasleek.

Hamabosgarren xedapen gehigarria. Udale-tako osasun funtzionarioak.

Udaletako osasun arloko funtzionario titullarrak, foru lege honek indarra hartzen duen egunean

lanpostuaren jabe badira, aukeran izanen dute Foru Komunitateko administrazioko funtzionario izatera pasatzea, tokiko osasun zerbitzuetara. Horretarako, eskabide idatzia aurkeztu beharko dute Foru Komunitateko administrazioko Erregistro Orokorrean, foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta, hortik kontatzen hasita, 30 egun naturaleko epean.

Hamaseigarren xedapen gehigarria. Oinarriko osasun eskualde berriak sortzea.

1. Etxabakoizko osasun eskualde oinarrikoa sortu da, eta Iruñeko udalerriko 4. barrutiko 12., 13. eta 26. sekzioak hartzen ditu.

2. Arrotxapea-Antsoaingo Osasun Eskualde Oinarrikoa bitan zatitu da:

a) Antsoaingo osasun eskualde oinarrikoa, Antsoaingo udalerria hartzen duena.

b) Arrotxapeko osasun eskualde oinarrikoa, Iruñeko udalerriko 7. barrutiko 1etik 8ra bitarteko sekzioak, eta 15., 16., 18. eta 19. sekzioak eta Berriobeitiko udalerriko Artikako Kontzejua hartzen dituena.

Hamazazpigarren xedapen gehigarria. Osasun eskualde oinarrikoen aldaketak.

Nafarroako Gobernuak, bere ekimenez edo kasuko udal edo kontzejuak eskatuta, osasun eskualde oinarriko batean dauden barruti eta atalak ondoan dagoen beste bati esleitu ahalko dizkio, osasun-laguntzaren arloko inguruabarrak direla-eta hala jokatzeko komeni denean.

Edozein kasutan ere, aldaketa-espeditentean agertuko da entzunaldia eman zaiola oinarriko eskualde horietako ordezkari organoari, horrelakorik badago, eta lurralde banaketa berriaren ondorioz ukitutako udal edo kontzejuetako ordezkari organoari.

Hamazortzigarren xedapen gehigarria. Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsetik (FEAGA) eta Nekazaritza aldean garapenerako Nekazaritzaren Europako Funtsetik (FEADER) heldu diren laguntzak kontrolatzeko laguntza kontratuak.

Europako FEAGA eta FEADER funtsen kontuak kitzatzeko prozedurari dagokionez, Europar Kontseiluaren 1290/2005 Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen Europar Batzordearen ekainaren 21eko 885/2006 Erregelamenduaren ondoriozko betebeharrak beteko direla bermatzeko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak eta Economía eta Ogasun Departamentuak laguntza kontratuak egin

ahalko dituzte, Europako funts horietatik heldu diren laguntzen eskatzaileei ordainketak egiteko oinarri hartzen diren egitateak kontrolatu eta egiaztatzeko, edo Nafarroako Foru Komunitateko Era-kunde Ordaintzailearen funtzioak betetzen laguntzeko Era berean, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren entitate instrumentalei eginkizun horiek betetzeko mandatua eman ahal die.

Hemeretzigarren xedapen gehigarria. Nekazaritzako finantzaketari buruzko lege-xedapenen Testu Bategina, otsailaren 16ko 54/1998 Legegintzako Foru Dekretuak onetsitakoa, aldatzea.

Otsailaren 16ko 54/1998 Legegintzako Foru Dekretuaren agindu hauek aldatu dira, eta orain eduki hau izanen dute:

Bat. "3. artikulua. Xedea.

Nekazaritzako egituren eraginkortasuna hobetzeko xedea duten laguntza hauek titulu honetan sarturik daudela ulertuko da:

1. Kontseiluaren irailaren 20ko 1698/2005 Erregelamenduari jarraikiz landa garapenerako ezarritako laguntzak. Erregelamendu hori nekazaritza aldean garapenerako Nekazaritzaren Europako Funttsaren bidezko landa garapenerako laguntzei buruzkoa da.

2. Nafarroako aurrekontu orokorren kargura finantzaturiko estatuko laguntzak, horien xedea baldin bada nekazaritzako egituren eraginkortasuna hobetzea."

Bi. "4 artikulua. Onurak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak kasuan kasuko oinarriekin ezarritako onurak kapital dirulaguntza izaerakoak izan ahalko dira, horien baliokidea interes hobaritan edo bien arteko nahasketa bat, aplikatzekoak diren Europako xedapenetan jasotako gehieneko muga barrenean."

Hiru. "5. artikulua. Onuradunak.

Aplikatzekoak diren Europako xedapenetan eta laguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak izan ahalko dira onuradunak."

Lau. "6. artikulua. Ureztatzeetan inbertsioak egiteko laguntzak.

Ureztalur bihurtzeko edo ureztalurrak hobetzeko inbertsioetarako laguntzak Nekazaritzako Azpi-egiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legean, hori garatzeko arauetan eta kasuan kasuko oinarrietan ezarritakoak zuzenduko ditu, aplikatzekoak diren Europako xedapenetan ezarritako gehieneko muga barrenean."

Bost. 7. eta 8. artikulua indarrak gabe gelditu dira.

Sei. "13. artikulua. Mozkinak.

Aurreko artikuluan aipatzen diren galerak konpentsatzeko laguntzak zuzeneko laguntza gisa edo interes puntuentzako dirulaguntzarekin eman ahalko dira; bigarren kasuan, onuradunak ordaindu beharreko interes tasa ez da 100eko 1,5 baino txikiagoa izanen, eta ez dira gaindituko aplikatzekoak diren Europako xedapenetan ezarritako gehieneko mugak."

Zazpi. "28. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

Onuradunek betebeharrak izanen dituzte: aplikatzekoak diren Europako xedapenetan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean eta laguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarritakoak"

Hogeigarren xedapen gehigarria. Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legearen aldaketa.

